

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2021eko azaroaren 26an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2021/12/15 239. Zk.

ZUHAITZAK MOZTEKO LIZENTZIARI DAGOKION TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. Artikulua. OINARRIA

Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikulua xedatutakoa gogoan izanda, Lurzoruaren Legearen 178. artikulua egurra ebakitzeko lizentzia ematea eskatzen duela kontuan hartuta eta udal administrazioko edo titularitateko bideen erabilera berezia arautzen duen udal ordenantzak ezarritakoarekin bat etorrita, Bermeoko udalerrian Ordenantza honetan agertzen diren arauak arautuko dute zuhaitzak mozteko lizentzia emateari dagokion tasa.

2. Artikulua. EGITATE EZARGARRIA

Tasa honen egitate ezargarria izango da udal jarduera teknikoa edo administratiboa, mendi publiko zein pribatuetan zuhaitzak moztu eta gero bide publikoetatik egurra arrastan eroateko lizentzia emateko garatzen dena.

3. Artikulua. SALBUESPENAK

Legezko xedapenen batean ezarritako salbuespenak eta hobariak baino ez dira izango aplikagarriak.

Dena dela, lizentzia eskatzen dutenek eskatu eta justifikatu beharko dituzte.

4. Artikulua. SUBJEKTU PASIBOA

1.- Tasa honen subjektu pasiboak dira lizentzia eskatzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak eta egurra moztu eta arrastan daroenak, beharrezko lizentzia eskatu barik lana burutu dabenean.

2.- Dena dela, subjektu pasiboaren ordezkotzat hartuko dira ebakitze lanetako kontratistak.

3.- Subjektu pasiboekin solidarioki erantzungo dute mozketak egiten diren etxaldeetako jabeek edo edukizailleek, eta baita errentadunek be. Hauen kasuan, hala izango da, euren baieztatu adierazia edo isilbidezkoagaz eta eskubidea urratu barik egin bada mozketak.

5. Artikulua. TASAREN KUOTA

- 1.- Lizentziako zenbateko finkoa izango da tasaren kuota. **97,78** eurotan ezartzen da.
- 2.- Lizentzia eman jakola interesdunari udalak jakinarazten ez deuteson bitartean uko egin leikio honek espresuki eskabideari, eta, orduan, lizentzia hori ematean ordaindu behar izango ebanaren % 50ean gutxituko zaio tasa.
- 3.- Ustiaketak kaltetutako baso-pisten, saka-bideen, udal errepideen eta beste elementu komunen egoera egokia bermatzeko fidantza ipini beharretik kanpo eskatuko da tasa.

6. Artikulua. SORTZAPENA

- 1.- Tasaren sortzapena eta ordaindu beharra lizentzia eskatzen den momentuan hasten da, edo lizentziarik lortu barik mozketak eta arrastea egiten denean.
- 2.- Sortzen eta likidatzen diren kuotak zuzenean ingesatuta ordainduko dira, Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapen Ordenantzan modalitate honetarako ezarritakoa kontuan izanda.